

Sanpedroak • Pasai San Pedro

Haurrak, jaietako gatza eta piperra

İñude eta artzainen desfilea, jolasak, bazkaria, kale antzerkia eta beste hainbat ekitaldi antolatu dituzte haientzat

Luis Mari Laboa | PASAI SAN PEDRO

Haurrak eta gazteak izaten ohi dira jaietako ekintza guztietako saltsaren perrexila. Asko dira etxeko txikientzat antolatutako ekitaldiak. Gaur bertan, Tirri-Tarra fanfarrearen doinuak lagun dituztela lau eta hamalau urte bitarteko 30 bat haur dantzan eta saltoka ibiliko dira karriketatik barrena iñude eta artzainen desfilean. Horiekin batera, beste hainbat gaztek, aurreko gizaldiko arropa dotoreekin jantzita, antzinako bizimodua eta ohiturak nolakoak ziren gogora ekarriko digute: piruleteroak, erizainak, mikelleteak, alkateak, alkatesak... Kaitik Torreatzaraino joango dira eta emanaldia antzeppen eta dantza saioekin bukatuko dute.

Bihar goizean, berriaz, Auzo Elkarteak antolatuta, larunbatean Purrusalda Txaranga zaratsua ibiliko da kaleetatik barrena. Guztira 75 bat haur ariko dira, sukaldariz jantzita, zartaginak eta txapak astintzen goizeko 10:00etatik aurrera, Tirri-Tarra fanfarreko kide ohiak lagun dituztela. Ordu betez ttipi eta ttpa ibili ostean, jolasak izango dira frontoian: zaku lasterketa, lapikoak apurtzea... Bazkaria ere izango dute Arraun Elkartearen 14:00etan. Menua: espagetiak tomatearekin.

Arratsaldean kaleko antzerkia izango da ekitaldi nagusia: Hankagorri taldeak *Urbasako astronautak* antzezlan eskainiko du frontoian, 16:00etan. Ondoren, Txirrindulari Elkarteak antolatuta, ginkana erraldoia egingo da. Bizikletarekin egin beharreko probak izango dira batez ere.

Ekitaldi horiek guztiak antolatzeke hainbat elkarte arituko dira lanean: Txirrindulari Elkartea, Auzo Elkarte, Lamiak Dantza Taldea eta İñalkiña (ukuiluetan jartzen den belar lehorri dagokion izena) Aisialdi Taldea, esaterako. Azkeneko honek izugarrizko lana egin du iazko abenduan sortu zenetik hona. Euskara, jolasak eta aisialdia uztartzeko oinarriekin jaio zen Abaraska Euskara Taldeak. Orain arteko ibilbidea laburra izan arren, herriko eginkizun garrantzitsuenetan hartu du parte jadanik, eta jaiak haurrei gerturatzeko xedearekin burubelarri lanean arituko dira bertako bost kideak. Halaber, tal-



GARI GARAIALDE

Hankagorri taldeak *Urbasako astronautak* antzezlan eskainiko du bihar 16:00etan frontoian.

DESFILEA

Tirri-Tarraren doinuak lagun, 4-14 urte bitarteko 30 bat haur dantzan ibiliko dira iñude eta artzainen desfilean

dearen izena eta nortasuna herrian ezagut dadin euren logotipoa aurkeztuko dute, eta herriko haurrei kamisetak oparituko dizkiete.

Neguan tailerrak, jolasak eta txangoak antolatu dituzte eta udan ere irtenaldiren bat edo beste egitea pentsatu dute. Irailetik aurrera, halaber, gogor ekingo diote haur eta gaztetxoekin lan egiteari.



LUIS TEJIDO/EFE

Haurrek hainbat jolas izango dituzte jaietan.

EGITARAUA

GAUR

09:30: Diana.
10:30: Meza Nagusia.
11:30: Eskuz binakako pilota partiduak.
12:00: Haurren iñude eta artzainen.
14:00: Herriko helduentzako bazkaria.
16:30: Puzgarriak eta jokoak Arraunlari kalean.
17:00: Pala txapelketa: 3. eta 4. postuak erabakitze partiduak.
18:00: Pala txapelketa: finala eta sari banaketa.
19:30: II. Goitibehera Txapelketa.
19:30: Presoen aldeko kalejira.
09:30: Jota kantariak frontoian: Melida taldea.
21:30: Paella jatea txosnen gunean.
23:00: Black Jico Reggae taldearen emanaldia.
00:30: Ttaka, ska taldearen kontzertua.
02:30: DJ baten musika emanaldia.

SONESA
ITSASOARENTZAKO ARTIKULUAK
KIROL ARRANTZA
☎ 943 39 07 21 Euskadi Etorb., 7 20110 TRINTXERPE ☎ 943 39 33 42 Arraunlari kalea, 3 20110 PASAI SAN PEDRO

MUGURUZA ARDOAK
Torreatze, 8 - behea
Tel.: 943 39 49 44 20110 - PASAI SAN PEDRO

ANTXETA ELKARTEA
Ondo pasa
Sanpedroak!
ARRAUNLARI KALEA - SAN PEDRO

IGELTSERITZA ETA ERAINKUNTZAK
Jabier Aranburu
GORA SAN PEDRO-KO JAIK
Seaoneko Markesa plaza, 4 - 6.D
20110 PASAIA SAN PEDRO
Tel: 943 39 53 05
Tailerra: 943 39 69 94
Mugk: 908 77 09 82